

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZESTOAKO UDALA

*Zestoako baratza ekologikoen esleipen eta kudeaketarako Araudi aldaketaren behin betiko onarpena.*

Zestoako Udal Batzarrak, 2021eko maiatzaren 27an eginiko bilkuran, Zestoako baratza ekologikoen esleipen eta kudeaketarako Araudia aldatzea hasiera batez onartu zuen, 5. eta 15. artikulua zehazki.

Jendaurreko epea igaro da eta ez da erreklamaziorik aurkeztu, eta ondorioz behin betikoz onartutzat ematen dira 5. eta 15. artikulua, hau diotelarik:

*5. artikulua. Lagapen epea.*

Lursailaren aprobetxamenduak edota erabilerak urtebeteko epea izango du; eta gehienez ere lau urtera arte luzatu ahal izango da.

Epea automatikoki luzatuko da aldeetako batek kontrakorik eskatu ez badu epea amaitu baino hilabete lehenago.

Esleipendunak, lizentzia amaitu aurreko hilabetean, baratzea garbi utzi beharko du, hurrengo esleipendunak lantzeko moduan.

*15. artikulua. Lizentzien iraupena.*

1. Lizentziek urtebeteko iraupena izango dute, eta gehienez 4 urtera arte luzatu ahal dira, nahiz eta titularrak eskubidea izango duen hurrengo deialdietan parte hartzeko.

2. Kasu bakoitzean eskumena duen tokiko organoak indargabetu ahal izango ditu aipatutako lizentziak, emakida ahalbidetu zuten baldintzak edo erabiltzaileek betebeharrak betetzen ez badituzte; horiek guztiak araudi honetan zehazten den eran.

Zestoa, 2021eko uztailaren 21a.—Ruben Alberdi Uranga, alkateordea. (5070)

AYUNTAMIENTO DE ZESTOA

*Aprobación definitiva de la modificación del Reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Zestoa.*

El Pleno del Ayuntamiento de Zestoa, en sesión celebrada el 27 de mayo de 2021, acordado aprobar inicialmente la modificación del Reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Zestoa, en concreto los artículos 5 y 15.

Trascurrido el periodo de información pública sin reclamaciones, se da por aprobados definitivamente las modificaciones de los artículos 5 y 15 que dicen así:

*Artículo 5. Plazo de cesión.*

El aprovechamiento y/o uso del terreno se concederá por periodos anuales, siendo susceptible de prórroga hasta un máximo de cuatro años.

Las prórrogas se prorrogarán automáticamente si ninguna de las partes solicita lo contrario con un mes de antelación a la finalización.

El adjudicatario deberá dejar, en el mes final del plazo de licencia, el huerto limpio y apto para ser cultivado por el siguiente adjudicatario.

*Artículo 15. Temporalidad de las licencias.*

1. Las licencias tendrán la duración de 4 años improrrogables, aunque el titular podrá optar a las siguientes convocatorias.

2. El órgano local que resulte competente, podrá dejar sin vigencia las citadas licencias, si el usuario incumpliera las condiciones para la adjudicación o las obligaciones establecidas por este reglamento.

Zestoa, a 21 de julio de 2021.—El alcalde en funciones, Ruben Alberdi Uranga. (5070)